

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Mugikortasun Jasangarriaren Gida-planaren zirriborroari emendakinak aurkezteko epea ireki da

Interesdunek ekarpenak eta proposamenak aurkeztu ditzakete apirilaren 22a bitartean

Osteguna, 2019.eko martxoak 7

[Nafarroako Mugikortasun Jasangarriaren Plan Zuzendariaren \(2018-2030\) zirriborroa](#) foru Gobernuaren, [Gobernu Irekia atarian](#) argitaratu da, hala nahi duten pertsonak edukien gainean ekarpenak edota proposamenak aurkeztu ditzaten. Epea apirilaren 22an amaituko da.

Emendakinak Nafarroako Gobernuko Erregistroan aurkeztu daitezke, San Ignacio hiribidea 3, Iruñean edota [hurrengo zerrendan](#) jasotzen diren bulegoetan, Herri Lanetako zuzendari orokorrak ostegun honetan [NAOn](#) argitaratutako Ebazpenean agertzen den moduan.

Plan honen onarpenarekin garraioaren jasangarritasunean aurrera egitea da asmoa, energia efizientzia indikadoreak hobetuz eta modu horretara negutegi efektuko gasen guztizko emisioa gutxituz.

Era berean, Planak Espezializazio Adimentsuaren Estrategian, S3, jasotzen diren lehiakortasun arloak indartzea du xede, energiaren erabilera, konexioak, komunikazioak eta pertsonen eta merkantzien garraioari dagokionean.

Informazio publikora orain zabaldu den dokumentuak, honako helburu hauek ere bete nahi ditu: mugikortasun jasangarriaren inguruko kultura zabaltzea; garraio publikoa sustatzea norbanakoaren autoa erabili beharrean; energiarekiko menpekotasuna murriztea eta kontsumoa efizienteagoa izatea; gizarte kohesioa bultzatzea, ingurumenarekin errespetagarriagoa den garraioak egunerokoan erabiltzeko aukera gizarte osoari zabalduz eta xede horiek lortu ahal izateko lege eta administrazioko tresnak identifikatzea.